

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Oxel Erostarbe Tubilla Aralar taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, Ekonomia eta Ogasun sailburu **Carlos Agirrerren AGERRALDI ESKARIA** egiten du, Renove planaren atxikitzeen inguruan” azalpenak eman ditzan, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuak batzordearen aurrean.

ZIOA

Renove Planen barruan emandako diru-laguntzen atxikitzeak egin beharko direla eta, Jaurlaritzatik adierazi da “foru-erakundeek dutela eskumen osoa, lortutako diru-laguntzak zergatik libre uzteko ala ez”. Hala ere, jakina da gobernuak badituela erakunde arteko guneak fiskalitatearen inguruan gobernuak egiten duenaren berri eman dezan. Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa ere hor dago eta, gainera, zergen elkar-egokitasunaren legeak gobernuari ematen dio ahalmena zerga politikan aldaketak egiteko ekimena. Hori horrela izanik ere, egunotan agerian geratu da aurreikuspen falta eta koordinaziorik eza.

AGERRALDI ESKAERA:

Aurreko guztiagatik, ezinbesteko deritzogu Ekonomia sailburua Legebiltzarrera etortzea, azalpenak eman ditzan foru-aldundiekin Renove planen laguntzen atxikipenen inguruan izandako deskoordinazioaren arrazoiak zeintzuk izan diren.

Gasteizen, 2010eko apirilaren 26an

Oxel Erostarbe Tubilla
Aralar taldeko legebiltzarkidea